

Kortesiako egunen adierazpena

1.- Giltzan identifikatu behar da.

Tramiteak eta zerbitzuak IDENTIFIKAZIOAREKIN

Autentifikatzeko zerbitzu hau herritarrei, erakundei edota beren ordezkari baimenduei zuzenduta dago.

Zerbitzu zehatzetara eta erabiltzailearen identitatearen egiaztapena eskatzen dituzten tramiteetara sartzeko, nahitaezkoa da zure burua identifikatzea.

GAKO OPERATIBOIA ?

Sartu ondoko datuak:

Identifikazio zenbakia:

Egiaztapen pasahitza:

1 3 7 8 2
9 5 6 0 4

SARTU

ZIURTAGIRIA, BAKQ ETA BAK ?

Bak C


Identifikazio mota jasagarriak:
* Ziurtagiri digitala
* BakQ
* Bak

Non eta nola eskatu Bak?
Onartutako ziurtagirien zerrenda ikusi
Beharkizun teknikoak
Nola froga dezaket sinadura elektronikoa?


SARTU

2. Gipuzkoatarian, jakinarazpen eta komunikazioen postontzian (Jakinarazi) sartu behar da.


- Gogokoen arabera




- Edo departamentuen arabera (“Sail bidezkoa”):



3.- Jakinarazi aplikazioan, “Kortesia egunak” utilitatea aukeratu behar da.




4.- Pantaila bat zabalduko da, non une horretara arte aukeratu diren egunak agertuko diren edo, halakorik ez badago, mezu hau adieraziko den: “Ez dago kortesia egunik”.




Aurretik adierazitako egunen zerrendan, oraindik aldatu daitezkeen egunak (7 eguneko gutxieneko aurrerapena betetzen dutenak) zaborrontziaren ikonoaz adierazita daude.


Egun berriak adierazteko, berriz, “Berria” botoia aukeratu behar da.



5.- Zabaltzen den pantailan, adierazi nahi diren egunak aukeratu eta “Gorde” markatu behar da.




Ez bada gutxieneko 7 eguneko aurrerapena betetzen kortesiazko egunak eskatzeko, mezu hau agertuko da “Hasiera data”-ren azpian:

Hasiera data 

Ezin da denboraldirik definitu 7 egun baino gutxiagoko aurrerapenarekin

Urte natural bakoitzeko 30 eguneko muga gainditzen bada, mezu bat agertuko da “Amaiera data”-ren azpian oharatarpen bat eginez:

Amaiera data 

Denboraldi honek onartutako egun kopurua gainditzen du

Eta ez badira betetzen ez gutxieneko aurrerapena eta ez gehieneko egun kopurua, bi mezu hauek agertuko dira:


Hasiera data <input type="text" value="2020/07/30"/> 	Amaiera data <input type="text" value="2020/10/30"/> 
Ezin da denboraldirik definitu 7 egun baino gutxiagoko aurrerapenarekin	Denboraldi honek onartutako egun kopurua gainditzen du

Aurretik adierazitako kortesiazko egunen aldaketa


Adierazitako egunak aldatzeko, lehendabizi, aldatu nahi diren egunak ezabatu behar dira, eta, gero, egun berriak markatu behar dira:


1.- Aldatu nahi den eguna ezabatu.

“Kortesiazko egunak” utilitatean sartu ondoren agertzen den lehen pantailan, ezabatu nahi den egunaren eskuinean, zaborrontziaren ikonoa aukeratu behar da:



Mezu bat agertuko da, kortesiazko egun bat ezabatu nahi dela baieztatzeko.





“Ezabatu” botoia sakatuz gero, aukeratutako eguna ezabatuko da eta baieztapen mezu bat agertuko da.

Zerga jakinarazpenik ez jasotzeko egunak - 2020

Ondo ezabatu da

Gehienez 30 egun aukeratu ditzakezu urtean.

	Data	Nork aldatua	
1	2020/08/08	7: H	
2	2020/08/09	72: I	
3	2020/08/10	7: H	
4	2020/08/11	7: H	

Zerga jakinarazpenik ez jasotzeko egunak - 2020

Ondo ezabatu da

2.- Ezabatutako egunaren ordez beste egun bat adierazi nahi bada, aldiz, aukeratutako egun berria “gehitu” behar da aurreko ataleko 4. puntuan eta hurrengoetan azaldutako moduan.